

Kostuen egitura

Enpresa bat aurrera ateratzeak dakartzan kostu guztiak definitzea. Prozesu guztiek gastu batzuk dakartzate, eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du.

Kostuen egiturek ezaugarri hauek izan ditzakete: kostu finkoak, kostu aldakorak, eskala-ekonomiak eta hedadura- edo irismen-ekonomiak.

Kostu finkoak: Soldata eta alokairu.

Kostu aldakorak: Lehengaiak, energia eta transportazio.

Eskala ekonomia: Ekoizpen gehiago deskontu gehiago eta unitateko kostu gutxiagoa.

Hedadura-ekonomia: Produktu anitzak, marka zuriak.

Low cost: Enpresa handiagoei lehiatzeko prezioak minimizatzea

Kostuak bultzatutako negozio-ereduak

Ahal den guztietan kostuak minimizatzea bideratzen dira, eta kostu-egitura ahalik eta txikiena sortzea eta mantentzea dute helburu, prezio baxuetan oinarritutako merkataritza-politikak erabiliz, prozesuak automatizatuz eta zerbitzuak modu masiboan azpikontratatzuz. Adibiderik nabarmenena kostu txikiko airelineak dira.

Balioak bultzatutako negozio-ereduak

Enpresen interes handiena ez datza kostuak minimizatzean, baizik eta bezeroari begira balioa sortzean (produktuen edo zerbitzuen kalitatea, marka eta abar zaintzea). Gainera, pertsonalizazio maila handia eskaintzen dute. Adibidez, luxuzko hotelak, erosotasun eta zerbitzu eksklusiboen eskaintza zabalarekin, kategoria honetan sartuko lirateke.